

Ikasturte hasierako ekitaldia

2012/09/19

“Hezkuntza eredu aurreratuetan aitzindari eta erreferente izaten jarraitu”. Mondragon Unibertsitateko Errektorearen, Iosu Zabalaren, hitzek laburtzen dute unibertsitate honen leitmotiva-a 2012/2013 ikasturtearen irekiera ofiziala ospatu duten egun honetan. Ekitaldia, orain urte bete ateak irekitzen zituen Gastronomia Zientzien Fakultatean – Basque Culinary Centerren izan da.

Hezkuntza arloan dauden erronkekin batera, Errektoreak, euskal enpresen lehiakortasuna eta enpregagarritasuna handitzen laguntzeko, zuzentzen duen unibertsitatearen konpromisoa berretsi du. Mundu mailako krisi testuinguru honetan, non, ekonomia eta kontsumoa gelditu dauden eta enpresen ekoizpena argi eta garbi atzerapausoak ematen dagoen, errektoreak, ekonomiaren hobekuntzarako unibertsitateek duten zeregina azaldu du. Bere iritziz, unibertsitateen erronka da enpresa berriak eta zerbitzu lehiakorrek bultzatzea, eta baita ere, egungo ekoizpen sistemaren eraldaketa sektore jasangarriagoetara bideratuz, beste erronka batzuen artean. Unibertsitateak, jada badarama denbora honetan lanean.

Ekitaldi ofizialean, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, Patxi López-ek, Mondragon Unibertsitateko Errektoreak, Iosu Zabalak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuak, Isabel Celaá, Mondragon Unibertsitateko Lehendakariordeak, Pedro Urteagak eta Mondragon Unibertsitateko Idazkari Nagusiak, Idoia Peñacobak hartu dute parte. Azken honek, 2011-2012 ikasturteko memoria akademikoa azaldu du. Hortaz gain, hasgai nagusia, Basque Culinary Centerreko I+G-ko zuzendaria den Iñaki Alava Doktoreak eskaini du “Sukaldaritza Zientzia Biokimikaren Eremuan” izenburupean.

